

Aitor Zalsaleta

KAZETARIA

Urrutiko iraultzak

Maisuak galdera ikasleari Kubako eskola batean.
 – Esaiguzu, mesedez, gure iraultzaren hiru lorpen handi.
 – Osasuna, Hezkuntza eta Kirola–, erantzun ikasleak.

Maisuak berriz:

– Eta hobetu beharreko beste hiru gauza?
 – Gosaria, bazkaria eta afora–, erantzun mutikoak.

Habanan entzundako txistea, azterketa sakonena baino adierazgarriagoa iruditu zitzaidan.

Hamabost egun besterik ez nuen egin Kuban, eta, beraz, gauza handirik ezin esan, baina bi ideia esango ditut behintzat, Kuban ikusitakoaren ondorio. Bata, ez dela nire ahotik sekula gehiago hango gobernuaren aldeko hitzik aterako. Eta bestea, badaukadala susmoa castrismoa bukatutakoan, anti-castrista egingo direla kubatar gehienak, Espainian Franco-rekin gertatu zen antzera.

Habanan, Iraultzaren museoa bisitatzerakoan, nola ez sentitu zirrara, baita mirespena ere, gazte adoretzu haiek duela 50 urte egin zutena ikusteko. Baina kalea zapalduta, museoko inpresioak kearen moduan azkar desegin ziren. Nik ezagutu nuen Kuba ez zen alaia, leku gutxitan hain begirada tristeak, horrenbeste etsipen. Aberastasuna banatzea helburu ederra da, Kuban eta edonon, baina ezin banatu ez dagoena.



Susmoa daukat castrismoa bukatutakoan, anti-castrista egingo direla kubatar gehienak



Ze erraza den European iraultzaile izatea, urrutitik iraultzaile, noski. Kubakoa gorai-patu eta hemengoa gutxietsi, baina garajejan 25.000 mila euroko kotxea edukita, eta bigarren etxea Jakan edo Errioxan, eta neguko oporrak elurretan, eta uda Cadizen. Zenbat horrelako Euskal Herrian.

Kuban, berriz, 20 euroko soldatak asko jota, kanpora atera ezin, eta isilik egon behar, urteak joan urteak etorri betiko leloak etengabe entzuten. Eskumari botoa ematen dion langilea baino tonto-atorik ez dagoela dio esaldi ezagunak. Listoak, ordea, ezkertiar peto sentitu eta kapitalista moduan bizi direnak. European ezker-ezkerreko alderdiak ia desagertu dira, baina Euskal Herrian, ostera, bilduma zabala daukagu. Gu ote gara listoenak?

Ez dago Europa inori eskolak emateko moduan, baina errealista izanez gero, eta ikusita mundua nola dagoen, ezin ukatu Europak erdietsi dituela bizi baldintza justuenak. Lorpen handiena, nire ustez, gizartearen %90 erdi klasekoa izatea. Guretzat ohikoak direnak pentsaezinezko luxuak dira munduko leku gehienetan: osasun publiko ona, ikasteko aukera, babes soziala... Baina Europa aspergarria da, ez dauka xarmarik, eta batzuek nahiago dute urrutiko sasi-iraultzaile izan, aspal-di galdu ziren paradisuaren distirek itsututa, eta koherentziaz harro gainera, lotsarik gabe. ■

TXANDAN

Josu Amezaga



Asko hitz egiten da globalizazioak kulturen eta hizkuntzen bilakaeran dituen ondorioez. Kasu gehienetan, eredu anglosaxoiaren eta ingelesaren zabal-kundeari lotutako kezkek planteatzen dira.

Aitzitik, badira bestelako joerak globalizazioan, berau gertaera konplexu eta kontraesankorra dela erakusten dutenak. Hona datu bat: gaur egun AEBetako biztanleen %20 ingelesa ez den hizkuntza batez mintzo da etxean; duela hogeita hamar urte portzentajea %11 zen. Beste datu bat: mundu

Globalizazioa

osoan, satellite bidezko 1.000 telebista emanaldi zuzentzen dira ingelesez, herrialde ez ingelesdunetara; aldi berean, 900 emanaldi zuzentzen dira AEBetara, ingelesa ez diren hizkuntzetan. Hartara, hango estatuak –Europako askok bezala– gero eta zailtasun handiagoak ditu kultur batasuna eraikitzeko; nazio sentimendua ziurtatzeko, beraz.

Badirudi globalizazioarekin munduko hiri eta herrialdeek gero eta elkarren antza handiagoa hartzen dutela. Baina, aldi berean, beren baitan gero eta heterogenoago bilakatzen ari dira.

Gutxienez, globalizazio bitxia. ■